[a]

aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

Andoain

2007/XI/30

# UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA BORTZIRIETAN, 2007

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

[a]

aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

Andoain

2007/XI/30

# UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA BORTZIRIETAN, 2007


## LAN TALDEA:

IÑAKI IURREBASO BITERI

AMAIA ELIZAGARATE SAGASTIBELTZA

AINHOA LASAGA ARRESE

# AURKIBIDEA

**A) UNIBERTSITATERA JO IZAN DUTEN BORTZIRIETAKO IKASLEEN UNIBERTSITATE AURREKO IBILBIDEA ETA HIZKUNTZA PROFILA ..... 4**

1) HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ HITZ EGITEKO GAITASUN ALDERATUA) ..... 5

2) HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ IRAKURTZEKO GAITASUN ALDERATUA) ..... 6

3) HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ IKASTEKO GAITASUN ALDERATUA) ..... 7

4) UNIBERTSITATE AURREKO HEZKUNTZA EREDUAK I: LEHEN HEZKUNTZAN ZEIN EREDUTAN IKASI ZUTEN ..... 9

5) UNIBERTSITATE AURREKO HEZKUNTZA EREDUAK II: BIGARREN HEZKUNTZAN ZEIN EREDUTAN IKASI ZUTEN ..... 10

6) UNIBERTSITATE AURREKO HEZKUNTZA EREDUAK III: BATXILLERGOA ZEIN EREDUTAN IKASI ZUTEN 11

**B) BORTZIRIETAKO GAZTEAK UNIBERTSITATERA ..... 13**

7) BATXILERGOA EGIN ETA IKASLEEK UNIBERTSITATERA JO DUTEN EDO EZ ..... 14

8) UNIBERTSITATERA JO DUTEN BORTZIRIARREN IBILBIDEA ..... 15

**C) BORTZIRIARREN UNIBERTSITATE HAUTUA ..... 17**

9) IKASKETA MOTA ..... 18

10) ZEIN UNIBERTSITATETAN IKASI DUTEN EDO ARI DIREN ..... 19

11) UNIBERTSITATEA ZEIN HIRITAN DAGOEN ..... 21

12) UNIBERTSITATEA ZEIN HERRIALDETAN DAGOEN ..... 22

**D) EUSKARAZKO ESKAINTZA BORTZIRIETAKO IKASLEEK HAUTATUTAKO UNIBERTSITATEETAN ..... 23**

13) UNIBERTSITATEAN EUSKARAZ IKASTEKO DUTEN AUKERAREN INGURUAN ..... 24

**E) UNIBERTSITATE HAUTUA ETA EUSKARAREN IRIZPIDEA ..... 26**

14) BESTE UNIBERTSITATEETAN IKASKETA BERAK EUSKARAZ EGITEKO AUKERARIK BA OTE DEN ..... 27

15) BESTE ESKAINTZEN INGURUKO INFORMAZIOA (EUREK HAUTATU EZ ZUTEN BESTE UNIBERTSITATE BATEAN EUSKARAZKO ESKAINTZA HANDIAGOA BAZELA ERANTZUN DUTENEN ARTEAN) ..... 29

16) EUSKARAZKO ESKAINTZAK EUREN ERABAKIAN ERAGINIK IZAN OTE ZUEN (EUSKARAZKO ESKAINTZA UGARIENA ZUEN IKASTOKIA HAUTATU ZUTENEN ARTEAN) ..... 30

**F) UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA. BORTZIRIETAKO IKASLEEN IRITZIAK ..... 32**

17) ZEIN HIZKUNTZATAN NAHIKO LITUZKETEN EGIN UNIBERTSITATE IKASKETAK ..... 33

**G) FITXA TEKNIKOA ..... 35**

**H) GALDERA SORTA ..... 37**

**I) TAULA GURUTZATUAK ..... 41**

BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

# A) UNIBERTSITATERA JO IZAN DUTEN BORTZIRIETAKO IKASLEEN UNIBERTSITATE AURREKO IBILBIDEA ETA HIZKUNTZA PROFILA

[a]
aztiker

**MAIZTASUNAK**

## 1) HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ HITZ EGITEKO GAITASUN ALDERATUA)

***Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago, euskaraz ala gaztelaniaz?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Gaztelaniaz errazago | 7 | 5,4 |
| Berdin euskaraz zein gaztelaniaz | 23 | 17,7 |
| Euskaraz errazago | 100 | 76,9 |
| **GUZTIRA** | **130** | **100,0** |

- Hiru laurdenek baino gehiagok (%76,9) hobeki hitz egiten dute euskaraz, gaztelaniaz baino. Hogeitik bakarrak (%5,4) dio hobeki mintzatzen dela gaztelaniaz, euskaraz baino. Gainerakoak (%17,7) berdintsu moldatzen dira hizkuntza batean zein bestean.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

**MAIZTASUNAK**

## 2) HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ IRAKURTZEKO GAITASUN ALDERATUA)

***Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu errazago, euskaraz ala gaztelaniaz?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Gaztelaniaz errazago | 9 | 6,9 |
| Berdin euskaraz zein gaztelaniaz | 27 | 20,8 |
| Euskaraz errazago | 94 | 72,3 |
| **GUZTIRA** | **130** | **100,0** |

☒ Hitz egiterakoan bezala, irakurtzerakoan ere gehienak hobeki moldatzen dira euskaraz, erdaraz baino. Hala ere, erlatiboki, handiagoa da euskal gaitasuna hitz egiteko orduan, irakurtzeko orduan baino.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

## 3) HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ IKASTEKO GAITASUN ALDERATUA)

**MAIZTASUNAK**

***Zein hizkuntzatan moldatzen zara errazago zure ikasketak egiteko?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Gaztelaniaz errazago | 8 | 6,2 |
| Berdin euskaraz zein gaztelaniaz | 26 | 20,0 |
| Euskaraz errazago | 96 | 73,8 |
| **GUZTIRA** | **130** | **100,0** |

☒ Hobekien zein hizkuntzatan ikasten duten galdetuta, Bortzirietako ikasle gehienek diote (%73,8) euskaraz hobeto moldatzen direla; %6,2k diote gaztelaniaz errazago moldatzen direla, eta gainerako %20,0ak batean zein bestean berdintsu moldatzen direla.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

GURUTZAKETAK

## 3) HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ IKASTEKO GAITASUN ALDERATUA)

***Zein hizkuntzatan moldatzen zara errazago zure ikasketak egiteko?***




- Harreman estua dago hizkuntza gaitasunaren eta hezkuntza ereduaren artean. Ikasgai guztiak erdaraz edo A ereduan ikasitakoak hobeki moldatzen dira, oro har, gaztelaniaz. D ereduan ikasitakoen artean, euskal gaitasuna errotuagoa azaltzen zaigu. B eredukoak erdibidean azaltzen zaizkigu.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

# 4) UNIBERTSITATE AURREKO HEZKUNTZA EREDUAK I: LEHEN HEZKUNTZAN ZEIN EREDUTAN IKASI ZUTEN

**MAIZTASUNAK**

***Zein hezkuntza eredutan egin zenuen Lehen Hezkuntza (nagusiki)?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Ikasgai guztiak gaztelaniaz | 1 | 0,8 |
| A ereduan (euskara ikasgai gisa, beste guztia gaztelaniaz) | 6 | 4,6 |
| B ereduan (erdi eta erdi) | 7 | 5,4 |
| D ereduan (gaztelania ikasgai gisa, beste guztia euskaraz) | 116 | 89,2 |
| **GUZTIRA** | **130** | **100,0** |

- Hamarretik bederatzik (%89,2) D ereduan egin zituzten Lehen Hezkuntzako ikasketak. B ereduan ikasi zuten %5,4k eta A ereduan %4,6k.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

## 5) UNIBERTSITATE AURREKO HEZKUNTZA EREDUAK II: BIGARREN HEZKUNTZAN ZEIN EREDUTAN IKASI ZUTEN

## MAIZTASUNAK

***Zein hezkuntza eredutan egin zenuen Bigarren Hezkuntza (nagusiki)?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Ikasgai guztiak gaztelaniaz | 1 | 0,8 |
| A ereduan (euskara ikasgai gisa, beste guztia gaztelaniaz) | 6 | 4,6 |
| B ereduan (erdi eta erdi) | 6 | 4,6 |
| D ereduan (gaztelania ikasgai gisa, beste guztia euskaraz) | 117 | 90,0 |
| **GUZTIRA** | **130** | **100,0** |

- Hamarretik bederatzik (%90,0) D ereduan egin zituzten Bigarren Hezkuntzako ikasketak. B ereduan ikasi zuten %4,6k eta beste hainbestek A ereduan.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

## 6) UNIBERTSITATE AURREKO HEZKUNTZA EREDUAK III: BATXILERGOA ZEIN EREDUTAN IKASI ZUTEN

**MAIZTASUNAK**

***Zein hezkuntza eredutan egin zenuen Batxilergoa(nagusiki)?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Ikasgai guztiak gaztelaniaz | 1 | 0,8 |
| A ereduan (euskara ikasgai gisa, beste guztia gaztelaniaz) | 6 | 4,6 |
| B ereduan (erdi eta erdi) | 5 | 3,8 |
| D ereduan (gaztelania ikasgai gisa, beste guztia euskaraz) | 118 | 90,8 |
| **GUZTIRA** | **130** | **100,0** |

- Hamarretik bederatzik (%90,8) D ereduan egin zuten Batxilergoa. A ereduan ikasi zuten %4,6k eta B ereduan %3,8k. Ikusten den bezala, proportzio berak aurkitu ditugu Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 20072006*

**GURUTZAKETAK**

# 6) UNIBERTSITATE AURREKO HEZKUNTZA EREDUAK III: BATXILERGOA ZEIN EREDUTAN IKASI ZUTEN

***Zein hezkuntza eredutan egin zenuen Batxilergoa(nagusiki)?***




- Aldeak daude ikasteredua eta udalerria harremanetan jarrita: aztertutako sei ikasturteetan, D ereduan ikasi zuten Arantzako, Etxalarko eta Igantziko ikasle elkarrizketatu guztiek. Lesakan eta Beran ere gehiengo argia dira (%92,9 eta %84,7 hurrenez hurren) D ereduan ikasi zutenak. Bi herri horietan, hala ere, gainerakoek pisu handiagoa dute, Beran bereziki.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

# B) BORTZIRIETAKO GAZTEAK UNIBERTSITATERA

## 7) BATXILLERGOA EGIN ETA IKASLEEK UNIBERTSITATERA JO DUTEN EDO EZ

**MAIZTASUNAK**

***Unibertsitate ikasketarik (diplomatura edo lizentziatura) egin al duzu edo egiten ari al zara?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Ez | 108 | 45,4 |
| Bai, hasi gutxienez | 130 | 54,6 |
| **GUZTIRA** | **238** | **100,0** |

- Batxilergoa egin duten bortziriarren erdiek baino gehixeagok (%54,6) hasi izan dituzte Unibertsitate ikasketak.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

# 8) UNIBERTSITATERA JO DUTEN BORTZIRIARREN IBILBIDEA

**MAIZTASUNAK**

***Unibertsitate ikasketarik (diplomatura edo lizentziatura) egin al duzu edo egiten ari al zara?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Unibertsitate ikasketak hasi zituen baina amaitu gabe utzi ditu | 2 | 1,5 |
| Bai, ikasketa bakarra hasi eta bukatu du | 36 | 27,7 |
| Bai, ikasketa bakarra hasi eta horretan jarraitzen du | 89 | 68,5 |
| Bai, ikasketa bat baino gehiago hasi, eta zerbaitetan jarraitzen du | 3 | 2,3 |
| **GUZTIRA** | **130** | **100,0** |

☒ 2000/2001 ikasturtetik 2005/2006ra Batxilergoa egin eta Unibertsitatera jo izan zuten bortziriarren artean, %1,5ek besterik ez ditu ikasketa horiek amaitu gabe utzi. Gainerakoek ikasketa horiek amaitu zituzten edo horretan dihardute.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

## 8) UNIBERTSITATERA JO DUTEN BORTZIRIARREN IBILBIDEA

**GURUTZAKETAK**

***Unibertsitate ikasketarik (diplomatura edo lizentziatura) egin al duzu edo egiten ari al zara?***




- Gizonezkoen artean gehiago dira unibertsitate ikasketak amaitu gabe utzi dituztenak.
- Emakumezkoen artean, aitzitik, gehiago dira euren unibertsitate ikasketak amaitu dituztenak.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

# C) BORTZIRIARREN UNIBERTSITATE HAUTUA

[a]
aztiker

## 9) IKASKETA MOTA

**MAIZTASUNAK**

***Zein Unibertsitate ikasketatan hasi izan dira azken sei ikasturte hauetan bortziriarrak?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Ikasketa teknikoak (Ingeniaritza, ingeniaritza teknikoak, arkitektura, informatika…) | 38 | 29,5 |
| Giza eta gizarte zientziak (Historia, kazetaritza, publizitatea, gizarte zientziak, pedagogia, psikologia, filologia, zuzenbidea…) | 26 | 20,2 |
| Irakasletza, haur hezkuntza, heziketa fisikoa… | 18 | 14,0 |
| Enpresaritza eta ekonomia | 16 | 12,4 |
| Osasunari lotuak (medikuntza, erizaintza, elikadura, optika…) | 15 | 11,6 |
| Zientziak (biologia, kimika, fisika, matematikak, ingurugiro zientziak…) | 14 | 10,9 |
| Arte ederrak | 2 | 1,6 |
| **GUZTIRA** | **129** | **100,0** |

☒ Zein Unibertsitate ikasketatan hasi izan dira azken sei ikasturte hauetan bortziriarrak? Ikasketa teknikoetan (%29,5), Giza eta Gizarte Zientzietan (%20,2), Irakasletzan (%14,0), Enpresaritza eta Ekonomian (%12,4). Osasun arloko ikasketetan (%11,6) eta Zientzia ikasketetan (%10,9).

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

## 10) ZEIN UNIBERTSITATETAN IKASI DUTEN EDO ARI DIREN

**MAIZTASUNAK**

***Zein unibertsitatetan ari zara karrera hori ikasten?***

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| NUP-UPNA | 11 | 8,8 |
| Universidad de Navarra | 9 | 7,2 |
| EHU-UPV Gasteiz | 23 | 18,4 |
| EHU-UPV Donostia | 40 | 32,0 |
| EHU-UPV Bilbo | 14 | 11,2 |
| Deustu (Bizkaia) | 1 | 0,8 |
| Deustu (Donostia-EUTG) | 6 | 4,8 |
| Mondragon Unibertsitatea | 12 | 9,6 |
| Beste | 9 | 7,2 |
| **GUZTIRA** | **125** | **100,0** |




- Unibertsitate eta campusak kontuan hartuta, Bortzirietako ikasleen herenek UPV-EHUren Donostiako campusera jo dute. Bigarren eta hirugarren ikastoki hautatuenak UPV-EHUren Gasteizko eta Bilboko campusak izan dira, eta laugarrena Mondragon Unibertsitatea. Nafarroako bi unibertsitateak (NUP eta Universidad de Navarra) bosgarren eta seigarren tokian agertzen zaizkigu, hurrenez hurren.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

## 10) ZEIN UNIBERTSITATETAN IKASI DUTEN EDO ARI DIREN

**GURUTZAKETAK**

***Zein unibertsitatetan ari zara karrera hori ikasten?***




**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

☒ Ikasketa guztiak erdaraz edo A ereduan egin dituzten ikasleek joera handiagoa izan dute NUP eta Universidad de Navarrara joateko, gainerako ikasleek baino. D ereduan ikasitakoek, gainerakoek baino gutxiago jo dute bi unibertsitate horietara.

## 11) UNIBERTSITATEA ZEIN HIRITAN DAGOEN

**MAIZTASUNAK**

***Zein hiritan ari zara karrera hori ikasten?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Iruñea | 20 | 16,0 |
| Donostia | 46 | 36,8 |
| Gasteiz | 23 | 18,4 |
| Bilbo | 15 | 12,0 |
| Arrasate | 12 | 9,6 |
| Beste | 9 | 7,2 |
| **GUZTIRA** | **125** | **100,0** |

- Ikasleen %16k besterik ez dute Iruñera jo bere Unibertsitate ikasketak egitera. Gainerako %84ek beste norabait jo dute; gehienek Donostiara (%36,8) eta Gasteizera (%12,0).

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

## 12) UNIBERTSITATEA ZEIN HERRIALDETAN DAGOEN

**MAIZTASUNAK**

***Zein herrialdetan ari zara karrera hori ikasten?***







| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Nafarroa Garaia | 20 | 16,0 |
| Gipuzkoa | 58 | 46,4 |
| Araba | 23 | 18,4 |
| Bizkaia | 15 | 12,0 |
| Euskal Herritik kanpo | 9 | 7,2 |
| **GUZTIRA** | **125** | **100,0** |

☒ Ikasleen %86k Nafarroa Garaitik kanpo egiten dituzte Unibertsitate ikasketak. Ia erdiek (%46,4) Gipuzkoara jo izan dute. Asko dira, halaber, Arabara (%18,4) eta Bizkaira (%12,0) jo dutenak. Azkenik, %7,2k Euskal Herritik kanpo egin izan ditu Unibertsitate ikasketak.

**Oinarria:**
**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

# D) EUSKARAZKO ESKAINTZA BORTZIRIETAKO IKASLEEK HAUTATUTAKO UNIBERTSITATEETAN

[a]
aztiker

MAIZTASUNAK

## 13) UNIBERTSITATEAN EUSKARAZ IKASTEKO DUTEN AUKERAREN INGURUAN

***Esadazu mesedez, karrera horretan zein aukera izan dituzun (eta izango duzun) ikasgaiak euskaraz ikasteko. (Zuk dakizula) ikasgai guztiak egin al daitezke euskaraz? (Ezezkoetan) zenbat ikasgai egin daitezke euskaraz?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Euskaraz ikas daiteke guztia edo ia guztia (%90etik gora) | 48 | 37,8 |
| Euskaraz ikas daiteke gehiena (%55-%90) | 24 | 18,9 |
| Erdia inguru ikas daiteke euskaraz (%45-%55) | 10 | 7,9 |
| Erdia baino gutxiago ikas daiteke euskaraz (%10-%45) | 9 | 7,1 |
| Ikasgairen bat edo beste (%10 edo gutxiago) | 16 | 12,6 |
| Ikasgai bakarra ere ezin da euskaraz ikasi | 20 | 15,7 |
| **GUZTIRA** | **127** | **100,0** |

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

- Bortzirietako ikasleek hautatu dituzten ikasketa eta ikastoki gehienetan, euskaraz ikas daitezke ikasgai (ia) guztiak (%37,8) edo gehienak (%18,9). Hautatu dituzten ikasketetan eta ikastokietan euskaraz ikasteko aukera ikasgaien erdira baino gutxiagora mugatzen da, ordea, Bortzirietako ikasleen %35,4rentzat. Zehazki, %15,7k ezin dute ikasgai bakarra ere euskaraz ikasi, eta beste %12,6k ikasgairen bat edo beste soilik egin dezake euskaraz.

## 13) UNIBERTSITATEAN EUSKARAZ IKASTEKO DUTEN AUKERAREN INGURUAN)  GURUTZAKETAK

***Esadazu mesedez, karrera horretan zein aukera izan dituzun (eta izango duzun) ikasgaiak euskaraz ikasteko. (Zuk dakizula) ikasgai guztiak egin al daitezke euskaraz? (Ezezkoetan) zenbat ikasgai egin daitezke euskaraz?***




☒ Euskaraz ikasteko eskaintza asko aldatzen da unibertsitatetik unibertsitatera. Euskaraz ikasteko aukera gehien UPV-EHU hautatu duten ikasleek daukate, nahiz eta horien artean ere askok (%39,2) ezin dituzten ikasketa guztiak edo ia guztiak euskaraz egin. Ondoren datoz, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea. Azken tokian, euskarazko eskaintza ahulenarekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Universidad de Navarra azaltzen zaizkigu.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

# E) UNIBERTSITATE HAUTUA ETA EUSKARAREN IRIZPIDEA

**MAIZTASUNAK**

## 14) BESTE UNIBERTSITATEETAN IKASKETA BERAK EUSKARAZ EGITEKO AUKERARIK BA OTE DEN

***Ba al dakizu beste unibertsitateren batean karrera hori bera euskaraz ikasteko aukera handiagoa ba ote den?***




- Hiru ikasletik bik baino gehiagok (%68,3) ikasketa horiek euskaraz burutzeko aukera handiena eskaintzen zuen ikastokia hautatu dute Unibertsitate ikasketak egiteko.

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Ez, beste unibertsitateetan euskarari toki berdina edo txikiagoa ematen diote | 84 | 68,3 |
| Bai, euskarari toki handiagoa ematen diote beste unibertsitate batean | 39 | 31,7 |
| **GUZTIRA** | **123** | **100,0** |

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

## 14) BESTE UNIBERTSITATEETAN IKASKETA BERAK EUSKARAZ EGITEKO AUKERARIK BA OTE DEN    GURUTZAKETAK

***Ba al dakizu beste unibertsitateren batean karrera hori bera euskaraz ikasteko aukera handiagoa ba ote den?***







- Aukeren artean ikastoki euskaldunena aukeratu zutenak gehiago izan ziren emakumezkoen artean, gizonezkoen artean baino. Batxilergoan hautatu zuten hezkuntza ereduarekin ere alde argiak ikusten dira: zenbat eta eredu euskaldunagoa, orduan eta hautu euskaldunagoa.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

**MAIZTASUNAK**

## 15) BESTE ESKAINTZEN INGURUKO INFORMAZIOA (EUREK HAUTATU EZ ZUTEN BESTE UNIBERTSITATE BATEAN EUSKARAZKO ESKAINTZA HANDIAGOA BAZELA ERANTZUN DUTENEN ARTEAN)

***Bere garaian, karrera horretara matrikulatu zinenean, ba al zenekien beste unibertsitateren batean euskaraz ikasteko aukera handiagoa bazegoela?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Bai | 36 | 94,7 |
| Ez | 2 | 5,3 |
| **GUZTIRA** | **38** | **100,0** |

- Ikasketak euskaraz egiteko aukera gehien ematen zien ikastokia ez beste bat hautatu zuten bortziriarren herenek ongi informatuta hartu zuten erabaki hori. Ia guztiek (%94,7) aldez aurretik baizekiten eskaintza *euskaldunago* horren berri. Ez da, hortaz, informazio faltarik izan erabaki hori hartzeko garaian.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

**MAIZTASUNAK**

## 16) EUSKARAZKO ESKAINTZAK EUREN ERABAKIAN ERAGINIK IZAN OTE ZUEN (EUSKARAZKO ESKAINTZA UGARIENA ZUEN IKASTOKIA HAUTATU ZUTENEN ARTEAN)

***Euskarazko eskaintzak izan al zuen eraginik zuk karrera hori unibertsitate horretan egitea erabaki izateko?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Bai, hori izan zen unibertsitate horretara jotzeko arrazoi nagusia | 43 | 52,4 |
| Bai, kontuan hartu nuen, baina arrazoi nagusia ez zen hori | 33 | 40,2 |
| Ez, ez nuen kontuan izan | 6 | 7,3 |
| **GUZTIRA** | **82** | **100,0** |

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

- Ikasketak euskarazko eskaintza ugariena zuen ikastokian hainbestek egin izana, horrek ez dirudi kasualitate hutsa. Aitzitik, egoera horretan dauden ikasleen erdiek baino gehiagok (%52,4) diote, hain justu, horixe izan zela ikastoki hori eta ez beste bat aukeratzeko arrazoi nagusia. Beste %40,2k, arrazoi nagusia ez izan arren, kontuan hartu omen zuten. Oso gutxi dira (%7,3) kontuan izan ez zutenak.

## 16) EUSKARAZKO ESKAINTZAK EUREN ERABAKIAN ERAGINIK IZAN OTE ZUEN (EUSKARAZKO ESKAINTZA UGARIENA ZUEN IKASTOKIA HAUTATU ZUTENEN ARTEAN)

**GURUTZAKETAK**

***Euskarazko eskaintzak izan al zuen eraginik zuk karrera hori unibertsitate horretan egitea erabaki izateko?***




- Euskarazko eskaintzarena arrazoi nagusia izan zela diotenen kopurua Beran baino dezente handiagoa da Arantzan, Etxalarren, Igantzin eta Lesakan.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

# F) UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA. BORTZIRIETAKO IKASLEEN IRITZIAK

**MAIZTASUNAK**

## 17) ZEIN HIZKUNTZATAN NAHIKO LITUZKETEN EGIN UNIBERTSITATE IKASKETAK

***Berez, zuri zein hizkuntzatan gustatuko litzaizuke ikastea unibertsitatean: euskaraz ala gaztelaniaz?***




| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Guztia euskaraz | 90 | 69,2 |
| Gehiena euskaraz | 17 | 13,1 |
| Bietan berdin | 16 | 12,3 |
| Gehiena gaztelaniaz | 4 | 3,1 |
| Guztia gaztelaniaz | 2 | 1,5 |
| Beste hizkuntzetan | 1 | 0,8 |
| **GUZTIRA** | **130** | **100,0** |

☒ Bortzirietako ikasleen bi herenek baino gehiagok (%69,2) euskara hutsez egin nahiko lituzkete Unibertsitate ikasketak. Aurkako muturrean, %1,5ek soilik diote gaztelania hutsez ikasi nahiko lukeela. Tarteko aukeren artean ere, pisu handiagoa dute erantzun *euskaldunagoek*, *erdaldunagoek* baino.

**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

**GURUTZAKETAK**

## 17) ZEIN HIZKUNTZATAN NAHIKO LITUZKETEN EGIN UNIBERTSITATE IKASKETAK

***Berez, zuri zein hizkuntzatan gustatuko litzaizuke ikastea unibertsitatean: euskaraz ala gaztelaniaz?***




**Iturria**: Aztiker, *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan inkesta, 2007*

☒ Unibertsitate aurreko ikasketak zein hizkuntzatan egin diren, horrek harreman estua du Unibertsitaterako nahiko luketen hizkuntzarekin. D ereduan ikasitakoen artean askoz pisu handiagoa dute Unibertsitatean ere euskara hutsez ikasi nahi dutela diotenak, gainerakoen artean baino.

BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

# G) FITXA TEKNIKOA

[a]
aztiker

| | |
|---|---|
| **Unibertsoa** | 2000/2001 eta 2005/2006 ikasturteak bitarte (biak barne) Batxilergoko ikasketak egin izan dituzten Bortzirietako ikasleak: 252 ikasle. |
| **Lagina** | Unibertso osoarengana iristen ahalegindu gara, eta ia guztiekin harremanetan jartzea eta elkarrizketa egitea lortu dugu. Zehazki, 238 elkarrizketa egin ditugu. Horien artean, unibertsitatera joan izan diren ikasleei egin dizkiegu 130. |
| **Landa lana** | Elkarrizketak 2007ko abuztuaren 8 eta 14 bitartean egin ziren telefonoz, galdera sorta egituratu bat erabilita (ikus galdera sorta eranskinean). Inkesta, esan bezala, unibertso osoari egin zitzaion. Esan beharra dago lan bikaina egin zutela elkarrizketatzaile aritu ziren Ainhoa Retegi, Saioa Garbisu eta Lorea Floresek. Aipatzekoa da, halaber, elkarrizketa egitea proposatu zitzaien Bortzirietako ikasleen jarrera ona. |
| **Akats tartea** | Unibertso osorako: **±%1,5**eko akats tartea, %95,5eko konfiantza mailan eta p=q=%50,0 denerako.<br><br>Unibertsitatera joan izan direnentzat (unibertsoa guk kalkulatuta, lagineko parametroen arabera): **±%2,0**eko akats tartea, %95,5eko konfiantza mailan eta p=q=%50,0 denerako. |
| **Ustiaketa** | Datuak bildu ostean, ustiaketari ekin diogu. Galderen emaitzak aurkezterakoan, kanpo utzi ditugu galdera bakoitzaren aurrean “ez dakit” esan zutenak edo ez erantzutea nahiago izan zutenak. |

# H) GALDERA-SORTA

**Inkestatzailea** | | |

**Inkesta ZK** | | |

**Hizkuntza** E 1X G 2☐

**Eguna** 29☐ 30☐

**Hasiera ordua:**

**Non?** (kalea, zk)

# UNIBERTSITATE HAUTUA BORTZIRIETAN, 2007

**Egunon!** (ELKARRIZKETATZAILEAREN IZENA) **naiz eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatetik deitzen dizut. Ikerketa bat egiten ari gara, bertako ikasleek unibertsitate ikasketak non egiten dituzten jakiteko.** (IKASLEAREN IZENA) **etxean al da?** (Ez baldin badago, sakelako telefonoa edo deitzeko ordu egokiagoa zein izan daitekeen galdetu). **Izango al zenituzke pare bat minutu galdera gutxi batzuei erantzuteko? Erantzunak, noski, guztiz anonimoak izango dira.**

**1. Oker ez banago, 200_/200_ ikasturtean amaitu zenituen Batxilergo ikasketak. Unibertsitate ikasketarik (diplomatura edo lizentziatura) egin al duzu edo egiten ari al zara geroztik?**

* Ez du unibertsitate ikasketarik hasi ere egin........... 1☐
  **>eskerrak eman eta elkarrizketa amaitu**
* Unibertsite ikasketak hasi zituen (bat edo gehiago), baina amaitu gabe utzi egin zituen ................................ 2☐
* Bai, ikasketa bakarra hasi eta bukatu ................... 3☐
* Bai, ikasketa bakarra hasi eta horretan jarraitzen du4☐
* Bai, ikasketa bat baino gehiago hasi ditu eta horretan jarraitzen du ..................................................... 5☐

* Ez daki......................................................... 9☐
* Erantzunik ez ................................................. 0☐

**2. Zein ikasketa edo karrera ari zara ikasten** (ikasketa bat baino gehiago hasi baditu, azkenekoak – edo garrantzia handien ematen diozun horiek- hartu)**? Zein ikasketa edo karrera ikasi zenuen** (azkeneko ikasketak)**? (ahalik eta zehatzen idatzi)**

______________________________

**3. Zein unibertsitatetan ari zara karrera hori ikasten? (ikasi zenuen karrera hori) Galderak egin eta egokitu.**

* NUP-UPNA.................................................1☐
* Universidad de Navarra (OPUSekoa)...............2☐
* EHU-UPV Gasteiz ....................................... 3☐
* EHU-UPV Donostia .....................................4☐
* EHU-UPV Bilbo...........................................5☐
* Deustu (Bizkaia) .........................................6☐
* Deustu (Donostia-EUTG)..............................7☐
* Mondragon Unibertsitatea ............................8☐
* Beste (kasu horretan, zehaztu: unibertsitatea, hiria eta herrialdea) ..........................................9☐

______________________________

**4. Esadazu mesedez, karrera horretan zein aukera izan dituzun (eta izango duzun) ikasgaiak euskaraz ikasteko. (Zuk dakizula) ikasgai guztiak egin al daitezke euskaraz? (Ezezkoetan) zenbat ikasgai egin daitezke euskaraz?**

* Euskaraz ikas daiteke guztia edo ia guztia (%90etik gora) ..............................................................1☐
* Euskaraz ikas daiteke gehiena (%55-%90) ..............2☐
* Erdia inguru ikas daiteke euskaraz (%45-%55) .........3☐
* Erdia baino gutxiago ikas daiteke euskaraz (%10-%45) ...............................................................4☐
* Ikasgairen bat edo beste (%10 edo gutxiago)...........5☐
* Ikasgai bakarra ere ezin da euskaraz ikasi ...............6☐

* Ez daki.............................................................9☐
* Erantzunik ez ....................................................0☐

**5. Ba al dakizu beste unibertsitateren batean karrera hori bera euskaraz ikasteko aukera handiagoa ba ote den?**

* Ez, ikasgaien artean euskarari toki berdina edo txikiagoa ematen diote beste unibertsitateetan ...... 1☐
* Bai, ikasgaien artean euskarari toki handiagoa ematen diote beste unibertsitateren batetan .......... 2☐
  **(JOAN 7. GALDERARA)**

* Ez daki ........ 9☐
* Erantzunik ez ........ 0☐

(5.ean **ezetz** erantzun dutenei egin)

**6. Euskarazko eskaintzak izan al zuen eraginik zuk karrera hori unibertsitate horretan egitea erabaki izanarekin?**

* Bai, hori izan zen unibertsitate horretara jotzeko arrazoi nagusietako bat ........ 1☐
  **(JOAN 8. GALDERARA)**
* Bai, kontuan hartu nuen, baina arrazoi nagusia ez zen hori izan ........ 2☐
  **(JOAN 8. GALDERARA)**
* Ez, ez nuen kontuan izan ........ 3☐
  **(JOAN 8. GALDERARA)**

* Ez daki ........ 9☐
* Erantzunik ez ........ 0☐

(5.ean **baietz** erantzun dutenei egin)

**7. Bere garaian, karrera horretara matrikulatu zinenean, ba al zenekien beste unibertsitateren batean euskaraz ikasteko aukera handiagoa bazegoela?**

* Bai ........ 1☐
* Ez ........ 2☐

* Ez daki ........ 9☐
* Erantzunik ez ........ 0☐

**8. Berez, zuri zein hizkuntzatan gustatuko litzaizuke ikastea unibertsitatean: euskaraz edo gaztelaniaz?** (bietan erantzuten badu, galderak egin eta egokitu)

* Guztia euskaraz ........ 1☐
* Gehiena euskaraz ........ 2☐
* Bietan berdin ........ 3☐
* Gehiena gaztelaniaz ........ 4☐
* Guztia gaztelaniaz ........ 5☐
* Beste hizkuntzetan ........ 6☐

* Ez daki ........ 9☐
* Erantzunik ez ........ 0☐

**Amaitzeko, zeuri buruzko galdera gutxi batzuk egingo dizkizut**

**9. Sexua/generoa (idatzi):**

* Emakumezkoa ........ 1☐
* Gizonezkoa ........ 2☐

**10. Zenbat urte beteko dituzu aurten?**

______________________________

**11. Udalerria:**

* Arantza ........ 1☐
* Bera ........ 2☐
* Etxalar ........ 3☐
* Igantzi ........ 4☐
* Lesaka ........ 5☐

**12. Hizkuntza gaitasuna** (elkarrizketatzaileak betetzeko)

* Ondo hitz egiten du ........ 1☐
* Ulertzen du, baina hitz egiteko zailtasunak ditu ........ 2☐
* Ez du ondo ulertzen ........ 3☐

* Ez daki ........ 9☐
* Erantzunik ez ........ 0☐

**13. Batxilergoa zein ikasturtetan amaitu zenuen?**

______________________________

**14. Zein hizkuntza ereduetan egin zenuen Lehen Hezkuntza** (nagusiki)**? Eta DBH** (nagusiki)**? Eta Batxilergoa** (nagusiki)**?**

| | Leh. H. | DBH | Batx. |
|---|---|---|---|
| * Ikasgai guztiak gaztelaniaz | 1☐ | 1☐ | 1☐ |
| * A ereduan (euskara ikasgai gisa, beste guztia gaztelaniaz) | 2☐ | 2☐ | 2☐ |
